# Gaurkoan

**Paulo AGIRREBALTZATEGI (*)**

# Bakea eta itxaropena Euskal Herrian?

Joan zen astean (martxoak 27-30) ihardunaldi batzu eman ziren Donostiako AKMn (Aurrezki Kutxa Munizipalean), Herria-2000 Eliza aldizkariak antolatuak. Gaia: "Bakea eta itxaropena Euskal Herrian".

Aldizkariarentzat eta bertako lantaldearentzat ez da gai harrotza. Aski trebatua dago lehendik horrelako alorretan. 1979an argitaratu zuen Euskadi: "La paz es posible", eta 1983an "Una historia de incomprensión exige negociar"; batean eta bestean hainbat lagunen lankidetza eta eritziak bildu zituen. Horien inguruan, berriz, Euskal Herri osoan antolatu zituen prentsaurrekoak eta mahainguruak. Berea du gaia aldizkariak, orain dela sei urte sortu zenetik.

Astealdiaren gai orokorra ez zen, formulatuta zegoen bezala, batere berria; gastatuegia, agian, nahiz eta oso gaurkoa izan: horrexegatik, beharbada. Batek baino gehiagok idealismoaren kutsua hartu zion seguruenik, eta ironiarik eta gaiztakeriarik gabe ere, irriparre etsia atera zitzaion agian; kontradiktorioa ere ematen zuen astealdiaren tituluak: Bakearen intxaropena? Benetan? Itxaropenerako bakea? Zein bake? Funtsean abstraktua zen ihardunaldien gai orokorra. Hitz erabiliegien jokoa zirudien...

Bakea? Aspalditxo honetan hustutzeko —hustuta gelditzeko— arriskutan dagoen hitza gure Herrian, ahobetezko hots bezala, baina hots soil bezala erabiltzen bait da; usteltzeko —ustelduta geratzeko— arriskutan daukagu bakea hitza, sarriegi gertatzen bait da etsaiari jaurtitzeko arma mingarria; mezu profetikoaren itxura hartu arren batzutan, Herri honi beronen barruko larritasunetik predikatu beharrean, gainetik, boterearen tribunatik edo "neutraltasunaren" katedratik botatako mehatxu demagogikoa gertatzen da sarriegi bakea.

Itxaropena? Hizlari batek teologikotzat jo zuen kontzeptu hori. Zergatik, ez dakit. Adiera eskatologikoa, mundu honetaz haraindikoa duela itxaropenak? Nola ulertzen den eta nola bizi den kontu. Nere ustez, abiaburu eta printzipio antropologikoa eta etikoa da aurrenik itxaropena; ez dago esperantza eskatologikorik, itxaropen historikorik gabe.

Zazpi hitzaldi lau egunetan: gehiegi seguruenik. Nere ustez, ez dira prediku idealista eta abstraktutan gelditu. Aurrenik, hiru ihardunaldi, bakerik ezaren sustraiak aztertzeko; urte askotako eta mende luzetako bortxa instituzionalak eta estatalak erretako lurrean eman ditu sustraiak gure herriko biolentziak. Euskal Herriaren historia eta borroka politiko nazionala; euskal gizartearen bilakaera eta egoera ekonomiko laborala; euskal komunitatearen menperapen eta gatazka hizkuntzazko kulturazkoa. Horiek izan ziren lehen hiri hitzaldien hariak. Herri honek jasan eta jasaten dituen desintegrazio nazionala, krisialdi ekonomikoa eta langabezia larria, eta ordezkapen eta diglosia linguistikoa: ez dira beharbada gure arteko gatazkaren eta biolentziaren sustrai bakarrak, baina bai nagusiak. Ez dago, arazo horietatik iheseginez, bakeaz eta itxaropenaz mintzatzerik. Bi hitzok Euskal Herriaren egoera gordinaren argitan jarri zirela uste dut.

Osteguneko bi hitzaldiek ("Segurtasunaren ideologia" eta "Europa, arazo teologikoa" izenekoek) biolentzia instituzionalaren eta estatalaren sare ideologiko-politiko-ekonomiko-kulturala sotatzera etorri ziren. Ordena da horren "arrazoi" handia: Estatubarruko ordena eta "serurtasun nazionala", batetik, Hegoameriketako diktadurek landu dutena, baina Europako "demokrazietan" ere bere sustraiak bota dituena; estatuarteko ordena eta kolonialismo internazionala, bestetik, Europa etnozentristak zibilizazioaren —"kristau zibilizazioaren"— izenean zabaldu dituenak Herrien Europa berri batetatik bakarrik bidera daiteke bertako eta nazioarteko bakea. Giulio Girardi hizlariak, munduko bi blokeetatik askatutako Europa berri bat irudikatu zuen, Hirugarren Mundutik begiratuta, eta ez eurozentrismotik.

Azkenik, ostiraleko bi hitzaldiek bakera bideratzeko eta lortzeko lur berria landu nahi izan zuten: etika berreskuratuz, batek (Jabier Sadabak), fede profetikoa eta askatzailea berreskuratuz, besteak (Feliz Placer-ek). Politika eta kultura berrien hautapena eta aukera eskatu zituen harek, "cambio"aren predikatzaileen "etika politikoa" gaindituko duena; pobreen eta zapalduen —herri zapaldu honen eta klase herritarren— askatasunaren aldeko hautapena eta ekina eskatzen dio bakearen bideak fededunari, botere guztien —bai eta botere erlijiozko eta elizakoaren— kateak etenez.

Iruditzen zaidanez, astealdi hori ez da neutraltasunaren zelaian gelditu. Ez dut uste, idealismoaren haizeak harrotzen ibili denik ere. Istiluaren eta gatazkaren sustrai luzeak larrutzen saiatu dela esango nuke: gure errealitate kixkalgarrian eskuak sartuz. Bestalde, Herri honek, gizarte honek, bere herritasuna eta askatasuna lor ditzan ez da beste biderik asmatu, erresistentzia herritarra, borroka eta lana besterik: Jarkierazko borrokaren barruan —eta barrutik— bakea landu! Horra astealdiaren mezuaren laburpena.

Guztia entzun ondoren, hasierako galdera aidean gelditu den susmoa daukat: bakea eta itxaropena Euskal Herrian? Esandakoen onarpen teoriko eta idealaren azpian halako eszeptizismo —etsipen?— praktikoa nabari dut. Bakearen helburua urruti eta itxaropenaren bidea luzea ikusten bait dira. Baina bakezko jarkierarako indarrak berritzeko balio izan du behintzat astealdiak. Seguruenik hortxe gainditzen da bakearen eta itxaropenaren kontradikzio-itxura hura, horiek eguneroko ekinean mamituz doazen neurrian.

Botererik gabeko herriaren indarra, jarkiera eta erresistentzia da beti: Egiaren zorrotzak, iraupenaren gogorrak, irudimenaren biziak, maitasunaren ekinak eta itxaropenaren eutsiak eragindakoa.

Iruditzen zaidanez, astealdiak Jeremia profetaren salakuntza hura errepikatu eta zabaldu nahi izan du, zera oihukatzen zuenean, Jainkoaren izenean: "Nere Herriaren zauria azaletik sendatu dute, Bakea! Bakea! hotseginez; baina ez dago bakerik". Hotseginez iraungo dute; eta Herri honen zauria "estaliz". Bakearen (?!) izenean.

(*) Euskal idazlea



# Puntaren Puntan

## la hermosa confraternidad

"Estén ustedes distendidos porque están en su casa". Con estas amables y cariñosas palabras, el presidente del Congreso, Gregorio Peces-Barba (el del stop a las fumatas) recibía en el Palacio de las Cortes, a una delegación de treinta y ocho oficiales de la Guardia Civil, acompañados —tal vez en mudo y emocionado homenaje a los regímenes militares hispanoamericanos— por un carabinero chileno y un guardia civil peruano.

La simpática delegación de miembros de la Benemérita venía pues a instalarse con todo tipo de atenciones en un hemiciclo donde un par de años antes, unos compañeros se habían instalado ya con muchísimas menos atenciones. En aquella ocasión eran ellos los que invitaban gentilmente a sus señorías con el "Se siente, coño" al que sólo le hubiera faltado lo de "considérense en su propia casa" que Tejero no llegó a decir porque indudablemente era un señor desprovisto del evidente sentido del humor que atesora el presidente Peces-Barba.

Hay que dar facilidades a estos buenos muchachos de la Benemérita aunque los vídeos que se conservan del 28-F demuestren, por otra parte, que sin necesidad de invitaciones de presidente alguno, los de verde se encontraban aquel día como Pedro por su casa en la casa de Peces-Barba.

Los diarios han dicho que el presidente hizo entrega de un bello recuerdo a la delegación de la Guardia Civil; una reproducción en miniatura de uno de los leones de la entrada. No dicen los cronicones si los de uniforme devolvieron la moneda. ¿Le entregaron tal vez como delicado recuerdo de su visita a las Cortes, un austero y reluciente tricornio de charol? No lo sabemos. Es claro sin embargo que entre tricornios y leones algo ha cambiado bajo el conjuro dialogante de Peces-Barba. Tal vez el cambio sea la presencia simbólica de ese callado carabinero de Pinochet. ¡Hermosa y emocionante confraternidad!

J. ABIRANETA

# Hemeroteca

## las pantallas de eta

*("Diario 16", 7-4-84)*

Un medio de comunicación tiene todo el derecho del mundo a equivocarse, y estamos dispuestos a admitir que si el medio es francés, las posibilidades de error o tergiversación sean mayores. Si, además, es España el tema de información, la caricatura y manipulación son prácticamente seguras. Pero nunca en la historia del país de Merimée se había llegado a un extremo de cinismo criminal como el exhibido por la televisión estatal francesa "Antena 2", en su programa de apología de ETA.

(...) Que un país teóricamente amigo corresponda a la millonaria compra de misiles Roland con una exaltación de los principales enemigos de nuestro Estado democrático constituye una prueba más del vergonzoso comportamiento del Gobierno Mitterrand con España. Y que no nos vengan con el cuento de la "independencia" de una televisión cuya "cadena de mando" es como la española y cuya dependencia gubernamental le ha ocasionado, como aquí también, el descrédito entre sus compatriotas.

## victoria internacional de eta

*(Lorenzo Contreras, en "ABC",)*

Un reportaje gratificador para ETA, que ha propagado la televisión del país vecino, ha agitado las aguas de las relaciones Madrid-París, provisionalmente aquietadas después del incidente del golfo de Vizcaya. Las madres de los etarras, por ejemplo, han sido comparadas con las argentinas "madres de mayo". ETA ha ganado, pues, una aislada batalla de imagen internacional precisamente en el país que ha empezado a cuestionar, con timidez todavía, el derecho de los refugiados vascos a disfrutar de un estatuto político.

## seguridad ciudadana

*(Areta en "Navarra hoy" 7-4-84)*

Pero no sólo con presencia policial en la calle se mejora la seguridad ciudadana. El último informe público de Amnistía Internacional mantiene que uno de cada tres países tortura a sus presos y en el Estado español se presentan treinta denuncias de malos tratos al año. Hay robos, atracos, denuncias, etc., que no recogen las cifras que anualmente se hacen públicas. Al aplicarse la Ley Antiterrorista hay detenidos que serán puestos en libertad sin que se notifiquen las prisiones a los tribunales.

El propio poder judicial también tendrá que reaccionar y no basar siempre sus procesos y su actuar con lentitud en falta de personal y excesiva burocracia. La inseguridad ciudadana se ve, se vive, se nota y se odia. Pero está ahí, es una cruz. Pero no queramos volver loco al ciudadano de a pie con acuerdos y manifestaciones que defienden una mayor seguridad. Hay que garantizarla, aunque puede ser también la pescadilla que se muerde la cola. Porque qué es antes: la droga, el delincuente, los traficantes, la protección, el juez, las leyes, el terrorismo, la política, la economía... Difícil solución.

## francia, una de cal y otra de arena

*(José María Flores, en "Lid",)*

El escándalo producido en España por la retransmisión de un programa favorable a las tesis de ETA en el segundo canal de la Televisión Francesa no hace sino confirmar que la actitud gala hacia el contencioso vasco camina dos pasos adelante y uno hacia atrás. Es decir, se avanza en cuanto al grado de apoyo del Gobierno de Mitterrand a las tesis de Madrid, pero las relaciones vecinales ponen al descubierto que no se da el necesario entendimiento, como demuestra el ametrallamiento de los pesqueros vascos o la parcialidad del programa "Resistencias".

(...) ¿Qué hacer pues, para hallar la mejor fórmula de colaboración entre ambas policías? Lo más probable es que no alcancemos ese grado de entendimiento necesario porque las posiciones de ambos Gobiernos, por muy socialistas que se llamen, son muy diferentes a la hora de comprender el problema de ETA. Para agravar más la situación resurge desde diciembre pasado la "guerra sucia" esta vez con el nombre del GAL, y el Gobierno español continúa "suplicando" una mayor colaboración antiterrorista, sin proponer nuevas iniciativas diplomáticas, tal vez porque no existen."